



GIPUZKOAKO MADE IKASTAROA.
MATRIKULATU AURRETIKO ARGIBIDEAK

MADE
Monitor Auxiliar de Deporte Escolar.

AURKIBIDEA

ZER DA MADE IKASTAROA?.....	3
KIROLENEK EMATEN DIZU IKASTAROA, ETA NOR GARA GU?	3
IKASTAROA NOLA ANTOLATZEN DIZUGU?.....	3
IRAKASKUNTZA METODOLOGIA.....	3
GIPUZKOAKO ESKOLA ADINEKO KIROLA.....	4
ETA IKASTARO HAU GERO ZER GEHIAGO IKAS DEZAKET?	4
NAHITAEZKO ASISTENTZIA.....	4
KONBALIDAZIOAK.....	4
NOLA EMAN IZENA.....	5
ZALANTZAK ARGITZEKO.....	5
ZENBAT BALIO DU IKASTAROAK?.....	6
SARRERA FROGAK. NOLAKOAK DIRA?.....	6

ZER DA MADE IKASTAROA?

8/2022 Legeak, kiroleko lanbideetara sartu eta aritzeko euskal legeak, kirolean jarduteko eduki behar duzun gutxieneko prestakuntza ezartzen du. Lege hori 2026ean sartuko da indarrean, eta gutxieneko MADE ikastaro hau egina ez baduzu ezingo zara aritu eskola adineko kirol jardueretako benjamin, alebin eta infantil kategorietan.

KIROLENEK EMATEN DIZU IKASTAROA, ETA NOR GARA GU?

Kirol Irakaskuntzen Euskadiko Ikastetxe Publiko bakarra gara, eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailekoak gara.

IKASTAROA NOLA ANTOLATZEN DIZUGU?

Ikastaroak orohar 68.5 ordu ditu eta nahitaezko bertaratze 18 ordu ditu. Bertaratzea, bitan egin beharko duzu: Lehena, sarrera froga egin eta hainbat eduki zehatz lantzeko. Bigarrena, bereganatu dituzun ezagutzen defentsa azterketa egiteko. Bi bertaratzeen tartean, edukiak Moodle Plataforma eta tutore pertsonalizatu batekin jorratuko dituzu.

Bertaratze ordutegi eta egutegia eskualde bakoitzean bertan erabakitzen duzue. Gu haietara egokitzen gara.

PRESTAKUNTZA-MODULUAK.	PRESENTZIALAK	TELEMATIKOAK	ORDUAK
orduak.			
Sarrera Froga	1		1
MED-C101: Kirol portaeraren oinarriak	3.5	16.5	20
MED-C102: Lehen sorospenak	10	20	30
MED-C103: Jarduera fisiko egokitua eta desgaitasuna	1	4	5
MED-C104: Kirol antolaketa eta Legedia	1	4	5
Haur eta Nerabeak indarkeria egoeretatik zaintzeko oinarrizko sentiberatasun ikastaroa.		3	3
Eskola adineko kirolean euskararen erabilera sustatzeko estrategien ikastaroa.	1	2	4
Bereganatutako ezagutzen defentsa azterketa.	0.5		0.5
Guztira	18	50.5	68.5

IRAKASKUNTZA METODOLOGIA.

Ikastaro honen protagonista zu zara. Ezagutza nor berak eraikitzen du eta horregatik, ikastaro honetan darabilgun metodologia ERRONKEN BIDEZKO IRAKASKUNTZA-IKASKUNTZA bat da.

Jendarte honetako etorkizuna haurrak dira, eta haiekin egingo duzu lan. Saiatuko gara oso denbora gutxian, Gipuzkoako adin txikikoen kirol hastapenerako oinarritzko trebakuntza bat ematen. Noraino heldu nahi duzun zure esku dago.

GIPUZKOAKO ESKOLA ADINEKO KIROLA.

Trebakuntza honetako edukiak ofizialak direnez, horiek Espainiako Gobernuak ditu ezarrita erreinu guztirako. Hala ere, eskola adineko kirolaren garapena, lurralde historiko bakoitzeko eskumena da Euskadin, eta beraz, horiek landu eta jorratzeko aukera izango duzu, bereziki, erronkak prestatu eta ebatsi beharko dituzun unean. Modu horretan, zure prestakuntza praktikoa eta errealitateari zeharo egokitua egongo da.

ETA IKASTARO HAU GERO ZER GEHIAGO IKAS DEZAKET?

MADE ikastaro hau Araubide Bereziki Kirol Irakaskuntzen lehen urratsa da. Kirol modalitate batek irakaskuntza hiru mailatan antolatzen da eta maila bakoitzak bloke orokor bat eta bloke espezifiko bat du. MADE lehen mailako bloke komunaren baliokide da eta beraz, kirol zehatz bateko lehen maila egin nahiko bazenu, soilik haren bloke espezifiko egin beharko zenuke.

[Gehiago jakin nahi baduzu sartu hemen](#)

NAHITAEZKO ASISTENTZIA.

Ikastaroa eskuratu nahi baduzu, nahitaez, azterketak gainditzeaz bat, ikastaro modulu bakoitzeko %80ko presentzia eduki behar duzu.

Ikastaro hau ikasketa ofiziala da eta beraz zure eskubidea da bertara etortzea. Beste konpromisoetatik salbuetsi egin zaitzakegu horretarako ziurtagiria eskatzen badiguzu.

KONBALIDAZIOAK.

Eduki programa aztertu eta gero, edukiren bat konbalidatzea dagokizula ulertzen baduzu, jakizu, matrikularekin batera egin beharko duzula eskaera. Eskaera, guk Espainiako Kiroletako Kontseilu Gorenari bidaliko diogu, hari baitagokio horiek onartzea.

Konbalidazioak goian adierazi dugun moduan, Kirol Kontseilu Gorenan eskatu behar dira baldin eta konbalidazioa oso korapilotsua bada; beste kasu arruntetan irailan atera zen agindu baten ondorioz, Kiroleneko administrazioak emango ditu konbalidazio hauek.

- Aurre-matrikula online egin. Dokumentazioa atxikitu eta ordainketa egin, beti ezarritako epeak kontutan hartuta.

- Behar izana egonez gero, Kirol Kontseilu Gorenaren eskaera orria bete eta sinatu (atxikitzen da). Goian esan dugun lez, ahalik eta arinen postaz bidali ORIGINALA Kirolenara. Erantzuna jasotzerakoan, emandako konbalidazioak markatu eta irakasleei abisatuko zaie. Eskatutako moduluren bat, ez badute konbalidatzen, horren zati proportzionala ordaindu beharko da.

- Ikaslearen ardurapean gelditzen da klaseetara joan ala ez Kirol Kontseilu Gorenako erantzuna izan arte baldin eta formakuntza hasita badago. Gure gomendioa egoera horretan beti izango da prozesu akademikoetan normaltasunez parte hartzea emaitza ziurtatzeko ikasleari.

- Ziurtatu ondo daudela emandako telefonoa eta emaila, horien bidez egiten direlako abisu guztiak.

-Matrikulaziora begira gure web gunetik pausuz pausu dena azalduta dago:

NOLA EMAN IZENA.

Matrikula irekiak izango dira eta gure web orritik informazioa ikusgarri egongo da: www.kirolene.net bertatik argi adieraziko da nola izena emon eta prozedura guztiak.

Matrikula prozedura hau bateragarria izango da Eskualdeko Tokiko Kirol Erreferenteen bidezko matrikulazio bidearekin. Prozedura hau da jarraian azalduko duguna:

Zure eskualdeko eskola adineko kirol erreferenteari eman behar diozu izen, abizenak, telefonoa eta posta elektronikoa. Hark guri bidaliko dizkigu zure datuak eta guk zuri posta elektroniko bat bidaliko dizugu prozedura baieztatuz.

Matrikulak bi urrats ditu. Hezkuntza Saila garez, lehenbizi, gure [IKASGUNE plataforman](#) erregistratu beharko zara eta ondoren, MADE ikastaroan apuntatu.

[Gehiago jakin nahi baduzu sartu hemen](#)

- Eskatzen den dokumentazioa atxikitu behar da Ikasguneren bidez. Dokumenturen bat, ez badaukazu edo ez badakizu zer den, edozein dokumentua atxikitu nahiz eta errepikatuta egon.

Izartxoa duten zelaiak, derrigorrez bete behar dira eta. Bukatzerakoan, gorde eta bidali behar da. Ondo eginda dagoela jakiteko, Ikasguneko karpetera joan (onarpen eskaerak) eta "Egoera" atalean, "bidalita" bezala agertu behar da, bestela zeozer bete barik edo bidali barik egongo zen.

-Idazkaritzatik, eskaerak banan banan begiratu behar ditugu. Zeozer faltan badago, abisua jasoko duzue. Adi egon epeakaz.

-Matrikularen egoera eta jarraipena, Ikasgunetik ikusi eta egin ahal da edozein momentuan.

-Ordainketa egiten denean, justifikantea gorde, edozein arazoa egonez gero aurkezteko. 24-48 ordu beranduago agertzen da aplikazioan baieztatpena. Behin ordainketa eginda egon, matrikularen prozedura amaituta dago.

-Kurtsoa hasi baino egun bat lehenago, emailara bidaltzen dira Moodleara sartzeko pasahitzak.

OSO GARRANTZITSUA da Moodlean publikatuta dagoen "Ikaslearen Gida" irakurtzea, bertan kurtsoaren inguruko informazioa datorrelako, baita irakasleen emailak.

-Edozein zalantza akademikoarekin, dagokion irakaslearekin kontaktuan jarri.

-Edozein zalantza edo arazo administratiboa izanez gero, Kiroleneko idazkaritzarekin jarri harremanetan:

ZALANTZAK ARGITZEKO.

KIROLENE
94.655.07.43
(09:00etatik 13:00etara)

Eraginkorrena, posta elektronikoa: info@kirolene.net

ZENBAT BALIO DU IKASTAROAK?

Ikasle bakoitzak 80,64 euroko prezio publikoa ordainduko du izen ematea egiteko.

SARRERA FROGAK. NOLAKOAK DIRA?

Pilotaleku batean oinarrizko trebezia froga bi egin behar dituzu. Errazak, egokituak eta guztien eskura daude. Txorakeria bat dirudien arren, gutxieneko trebezia motor bat eskatzen dizuegu legez hala ezarria baitigute.

Froga hauek Euskadiko Euskal Pilota Federazioak antolatu eta Gipuzkoako Federazioak eramaten ditu aurrera.

Pilotaleku batean egiten den froga honek gainditu beharreko bi ariketa ditu. Ariketa biek oso oinarrizko kolpatze teknika neurtzen dute, eta nahitaez, biak gainditu behar dira sarrera froga gainditzeko. Ariketa dira:

Gehiago jakin nahi baduzu sartu hemen.

1.go ariketa: Botatzea eta itzultzea menderatzea.

Hautagaiak, frontenis erraketa ezker edo eskuin eskuaz hartu eta 4ko koadroan ipiniko da. Frogaren garapena: Izangaiak pilota frontisaren kontra bota eta horren kontra itzuliko du, posizio Ebaluazio irizpideak:

- Pilotaren lehen kolpea frontisaren aurka, 36 metroko frontoia 4. Kuadrotik egin du.
- Bigarren kolpea lehenengoaren koadro beretik eman du.
- Bigarren kolpearen ondorengo lehen botea 3. Eta 5 kuadroen artean eta kantxaren ezkerrean izatea lortu da (irudikapen grafikoa atxiki da).
- Pilotak ez du momentu baten ere ez ezkerreko horma ukitu.
- Espezialitatearen araudia bete da momentu guztietan.
- Gutxienez 3 alditan, aukeratutako espezialitatearen ebaluazio irizpideak guztiak bete dira, gehieneko 8 aukeretatik.


2. ariketa: Piloteoa menderatzea.

Frogaren garapena: Piloteoa frontisaren aurka, 36 metroko frontoiko 4. koadrotik, edozein beso erabiliz. Hautagaiak, frontenis erraketa ezker edo eskuinarekin hartu eta 4.koadroan kokatuko da.

Ebaluazio irizpideak:

- Gutxienez, jarraian 6 itzulketa egin dira frontisaren aurka.
- Pilota frontisaren aurka jaurti da, momentu oro, 36 metroko frontoiko 4.kuadroaren atzetik.
- Espezialitatearen araudia bete da kolpea guztietan.
- Gutxienez 3 alditan, aukeratutako espezialitatearen ebaluazio irizpide guztiak bete dira, gehieneko 8 aukeretatik.

3



© KiroleNE
www.kirolene.net

7